

anboto

Badator Korrika!

Durangaldean dena prest dago Korrikaren olatuak eskualdea busteko. Hainbat herritan egitarau zabala prestatu dute, goizaldera arteko tarteak girotzeko.



Durangaldeko euskaltzaileen beroa Bilbora heldu aurretik

E.H. KORRIKA

Korrika ia Euskal Herri osoa zeharkatuta ailegatuko da Durangaldera, Bilboko kaleetan barneratu aurreko azken orduetan. Ermua aldetik sartuko da, Mallabira, 22:29 aldera, eta goizaldean irtengo da, Zornotzatik, bidean eskualdeko herririk gehienak bisitatu eta gero. Urruti geratu dira Atharratzeko plaza borbora eta eskualdeko hainbat herritarrek joan zen asteko zubian Nafarroa aldean eginiko kilometroak. Zorionez, baina, gozamenerako tarte ugari dago oraindino, AEK eta helduen alfabetatzea bultzatzeko arrazoiak bezainbeste.

Hedabide honetako lantaldeak bat egin du Korrikagaz, eta, urtero legez, Berbaro euskara elkartegaz batera batuko da lasterketara Durangoko kaleetan. Era berean, *anboto.org* atarian eskualdeko bideoak eta argazkiak publikatuko ditu Korrika pasatu ondorengo orduetan.


MALLABIA
22:29



ZALDIBAR
22:48



BERRIZ
23:12



ELORRIO
23:36



ATXONDO
0:35



ABADIÑO
0:54



clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA · ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA · ODONTOPEDIATRIA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA · HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

JUAN OROBIOGOITIA BHI

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2025ko martxoaren 19tik 29ra

Olaburu 3 - IURRETA
Tel.: 94 428 80 00
www.oroibioigoitiabhi.hezkuntza.net


KALITATEA HEZKUNTZAN
Eskola Jasangarria Zuztagiria
Funded by the European Union

Izaten IHASI

Euskara gara. Gurean ere Korrikarekin bat.

jesuitak Durango

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2025ko martxoaren 19tik 29ra



KORRIKAKO EGITARAUA

ABADIÑO

MARTXOAK 27, BARIKUA

- **11:00 -13:00** Korrika txikiak Zelaietan eta Traña-Matienan.
- **18:30** Laburbirako filmak Txanportan.

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- **11:00 -13:00** Uretako puzgarriak eta 50X4 erreleboak Astolako igerilekuan.
- **14:30** Kantu bazkaria probalekuan.
- **18:30** 'Egun on sikiera' familia ikuskizuna Traña-Matienako frontoian.
- **20:30-00:30** Karaoke ibiltaria Traña-Matienako kaleetan.

- **20:30-00:30** Eingo Erromeria Zelaietako kaleetan.
- **00:54-01:29** Korrika Abadiñon.

ATXONDO

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- **17:00** Umeentzako tailerra Bermeoko erraldoi txikien konpartsagaz.
- **18:30** kalejira erraldoiekin eta gaiteroekin.
- **20:00** Kontzertua *La Basu*.
- **21:30-22:00** Maleta siku afaria. Ondoren, karaokea.
- **20:00-22:30** Kalejira *DJ Trikitrak taldeagaz*.
- **23:30** Korrikari ongi etorria Etxegorrrin (Miotan).

BERRIZ

MARTXOAK 27, BARIKUA

- **11:00** Korrika txikia (Ibilbidea: Zengotitabengoa kalea/ Geltoki/ Iturriza/ Learreta-Markina.
- **20:00** Antzerkia kultur etxean: *Hurrengo geltokia (Karrika antzerki taldea)*

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- **18:00-20:00** Diskorrika. Olakueta plazan.
- **20:00-21:30** Triki-poteoa Olakuetan zehar. Herriko musikari eta kantu lagunekin.
- **23:10** Korrikari ondoetorria Berrizen.

DURANGO

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- **18:30** Berbaldia Gaztetxean.

- **19:00** Andra Mariko elizpean, Kaina bi-trikifarra triki poteoa trikitilariak lagunduta.
- **20:00** Bertso poteoa Alde Zaharrean.
- **21:30** Korrika afaria Landako Gunean. Ondoren, Errota erromeria.
- **01:42** Ongi etorri, Korrika!

ELORRIO

MARTXOAK 27, BARIKUA

- **14:30** Korrika txikia plazan.
- **15:00** Ikasleen ikuskizuna eta txokolatea, plazan.
- **17:00-19:00** Korrika txikia jaia, plazan: txapa tailerra, aurpegi margoketa eta disko korrika festa.
- **18:30** Gozagunean, bingo musikatua.
- **20:00** Arriolan, 'Zerbait sartu zait begian' Imanol Epelderen ikuskizuna.

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- **18:30** Gozagunean, Korrika-Kahoot lehiaketa.

GARAI

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- **18:00** Pankartak eta petoak margotzeko tailerra. Ondoren, Korrika txikia herriko kaleetan.
- **21:00** Herri afaria Otea-Loran elkartean.
- **Afalondoan**, Berrizera joango dira Korrikagaz bat egitera.

IURRETA

MARTXOAK 27, BARIKUA

- **11:00etan**, Korrika txikia Orobiogoitian hasita.
- **18:00etan** puzgarria eta umeentzako tailerrak Askondoko Karpan.
- Ondoren, DJ Ainhua.*

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- **19:00etan**, Hitano poteoa.
- **21:00etan**, trikitilariekin kalejira Durangora.



- 21:30ean, Korrika afaria Durangon, Landako Gunean.
- 03:15ean ongietorria Korrikari lurretan.

MALLABIA

MARTXOAK 27, BARIKUA

- 15:00 Korrika txikia eskolatik hasita.
- 16:00 Txokolatada.
- 18:30 - 20:00 Gauargi erromeria (Antolatzailea: Eskola, guraso-elkarte eta Mallabiko Udala).

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- 17:30 Talo ikastaroa.
- 19:00 Triki-poteoa bertsolariekin: Joanes Illarregi eta Eneritz Artetxe (Antolatzailea: Zaparrada kultur elkarte)
- 20:30 Mokadutxo.
- 22:40 Korrika Mallabian.



AEK

AZKEN TXANPA Durangaldea prest dago Korrika Bilbora behar den moduan heldu dadin bultzatzeko. Irudian, 2024ko Korrika Elorrio zeharkatzen.

MARTXOAK 29, DOMEKA

- 11:00 Multikirola eskolako frontoian. Ondoren, "hamabietakoa".
- 16:00 Euskarazko filma krispetekin, Kontzejuzarrean.
- 17:30 Bingo berezia.
- 18:00 Mahai jolasak (Antolatzailea: futbito taldea).

MARTXOAK 30, ASTELEHENA

- 18:00 - 20:00 Petojoskintza. Korrikako petoak poltsa bihurtzeko tailerra.

ZALDIBAR

MARTXOAK 27, BARIKUA

- 10:15 Korrika txikia eskolan.

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- Egun osoan zehar, udaletxeko plazan, Korrika Zaldibarren argazki erakusketa.

- 19:00 Peto banaketa, dantzariak eta txokolatada. Udaletxeko plazan.
- 20:00-22:00 Kittu taldearen kalejira.
- 22:45 Korrika Zaldibarren.

ZORNOTZA

MARTXOAK 27, BARIKUA

- 10:00 Korrika txikia ikastolatik hasita. Amaieran, ekitaldia Zelaieta parkean.
- 19:00 Batukada, Lopenan hasita.

MARTXOAK 28, ZAPATUA

- 19:30 Poteo musikatua Luis Urrengoetxean (Zornotzako gazteak).
- 21:00 Erromeria: Sugar. Pike plazan (Zornotzako gazteak).
- 21:30 Arraibi plazan, Txiri-Txiri tabernak antolatuta: Txalaparta 'Enbeitarrak atzo eta gaur', bertsoak eta koplak.
- 03:49-05:12 Korrika Zornotzan zehar.

946 730 251 | info@fpzornotza.eus | www.fpzornotza.eus | zornotzafp | CIFP Zornotza LHIII

Erizaintzako Zainketa Osagariak	Mikroinformatika-sistemak eta Sareak	Garraioa eta Logistika	Plataforma Anitzeko
Mantentze-lan Elektromekanikoa	Soldadura eta Galderagintza	Mekatronika Industrial	Aplikazioen Garapena
Merkataritza Jarduerak		Metal-erakuntzak	Web Aplikazioen Garapena

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 - BERRIZ - 94 622 50 99 | keinuoptometriazentroa.com

Urkiol gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA | 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

Haur eta Lehen Hezkuntza
T. 94 428 01 74 / M. 615 75 18 43
www.landakoeskola.org
@landakoeskolapublikoa

Errigorako Orburutxo eta Zainzuriñe askotariko sariak banatzen dabiltza

Ekaitz Herrera ERRIGORA

Korrikaren omendua Errigora dela eta, Nafarroa hegoaldea euskalduntzeko dinamika toki berezia izaten dabil aurtan. Izan ere, Errigorako pertsonaia bi, Orburutxo eta Zainzuriñe, Korrikan parte hartzen dabiltza. Pertsonaiak egunero-egunero irteten dira lasterketako kilometroren batean arineketan egitera, eta sariak irabazteko aukera eskaintzen diete haiek identifikatzen dituztenei. "Gu biok egunero aterako gara Korrikara, baina sorpresa izango da zein kilometrotan aterako garen. Hor zu sartzen zara jokoa, korrikazale: Korrikaren aplikazioan sartu eta bideo-kroniketara jo beharko duzu gu aurkitzera. Zein kilometrotan ateratzen garen asmatzen duzuenon artean sari bikainen zozketak egingo ditugu egunero", esan zuten pertsonaiek egitasmoaren aurkezpena egin zutenean.

Egunotan, pertsonaia biak identifikatuta, lehiakideek Errigora-aren atarira sartu beharko dute gaueko 22:00etatik goizeko 10:00etara bitartean. Bertan, parte hartzeko inprimakia bete beharko dute, eta Orburutxo eta Zainzuriñe zein kilometrotan ikusi dituzten

zehaztu. Asmatzen dutenen artean sariak egingo dituzte zotz. Errigorako otzarak, hainbat litro olio, bazkariak upategietan, zainzuri eta orburu loteak, bisita gidatuak olio-errotak batera, Agerraldiko arropa sorta eta asteburu-pasabate Erriberan.



Martxoaren 22an Etxaurin agertu ziren pertsonaiak. ERRIGORA



Orburutxo Atharratzetik Maulerako bidean agertu zen hilaren 19an. AEK

Batetik bestera, geratu barik

Atharratzetik Maulerako bidean (Zuberoa) lehenengo kilometroetan agertu ziren; Otsagabian (Nafarroa) arineketan egin zuten, 182. kilometroan, eta Korrikako hirugarren egunean Etxaurin (Nafarroa) agertu ziren, lagun artean. Orburutxo eta Zainzuriñe fin dabiltza Korrikan parte hartzen eta sarituei opariak banatzen.

AEKk Errigora omendu du aurtengo Korrikan. Xabier Gartzia AEKren nazio kontseiluko kideak Platerueneko omenaldi ekitaldian esan zuenez, Errigora "ideia sinple bezain ausart" jaio zen, "Korrika bezalatsu", eta denborak erakutsi du egitasmo "arrakastatsua eta bikaina" dela. Ane Elordi Korrikako koordinatzaileak esan du Errigora bidelagun dutela, helduen euskalduntzea dutelako erronka eta helburu.

INDUSTRIA
EUSKALDUNA

ASCA

www.talleresasca.com
Galdaketarako moldeak eta ereduak

ALLUITZ MOTOR

Alluitz kalea, DURANGO
94 620 20 04
www.alluitzmotor.com

ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

URRUN IRISTEKO, GERTU. Andramari Zornotzako Ikastola

Euskara ahoan, euskara bihotzean

Martxoaren 19tik 29ra Korrikarekin bat!

946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoikastola.eus



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI



ESKAINITZA

0 urtetik 18
urtera bitarteko
hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuen
ziurtagiria.
Bertokoa,
ekologikoa eta
sasoikoa.

Ikasturte guztian zehar
bisita egiteko aukera.

Galtzareta Kalea, 13 · 48200 Durango, Bizkaia
946 20 08 22 · kurutziagaikastola.eus



24.korrika *aek*
**Euskara
gara**

Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Ane Elordi Korrikako koordinatzaileak Zornotzako AEK euskategiak hasi zuen astelehena. Baina laster alde egin behar izan zuen Eginora bidean, Korrika Altsasutik pasatzean han egon behar zuelako. Korrika martxan da, baina zornotzarrak lan handia du bestela ere. Atharratzen izan zen Korrikaren hasiera ekitaldian, Izaban ere izan zen, eta baita Iruñean ere. Bilbon amaitu aurretik, euskararen aldeko lasterketa erraldoia Durangaldetik pasatuko da, tartean Elordiren jaioteritik, Zornotzatik.

Zelan joan dira Korrikaren lehenengo egunak?

Hasiera oso indartsua izan zen. Esango nuke mugarri historiko bat izan zela Atharratzeko plaza euskararen alde horrela betetzea. Ez dut uste plaza horretan hainbeste jende batu duen beste ekitaldirik egin denik inoiz. Beraz, abiapuntua oso indartsua izan da. Jende kopuru handia joan zen, Euskal Herri osotik. Jende asko eta asko ikusten zen errepide bazterretan, lehenengo kilometroan zein hurrengoetan. Izaban ere

izan nintzen, bariku eguerdian, eta hura ere jendez gainezka zegoen. Orduak aurrera egin ahala berdin jarraitzen du, ezta? Batzuetan jende askoko guneak, baina gero tropela txikitzen joaten da, baina halakoetan ere talde handia beti mantendu dela esango nuke. Gure artean komentatu dugu orain arte ez dugula ikusi bost lagun baino gutxiagoko lekuko hartzerik, eta hori garrantzitsua da. Korrika Ipar Euskal Herriko hiriburu bitik pasatu da, Mauletik eta Donibane Garazitik, eta egun jendetsuak izan dira. Zer esanik ez Korrika Hego Euskal Herrira sartu denean. Iruñea gainezka zegoen, eta Korrikak oso harrera beroa izan zuen. Pozarren gaude, lekuko hartzerik gehienak bete egin direlako.

Nazioartetik jasotako babesa ere aipatu gura nuke. Orain, adibidez, eguerdian Eginora (Araba) noa. Han, ANCKo, Via Galegako eta Omniumeko kideek Gure Eskukoen kilometroa hartuko dute. Eskertzekoa da nazioartetik datorren babesa, batez ere hizkuntza gutxiuak dituzten lurraldeetatik datorrena. Atharratzen bertan, La Pa-

"Pizkunde bat gura badugu, euskaltzaleok eta euskaldunok batuta egon behar dugu"

ANE ELORDI KORRIKAKO KOORDINATZAILEA

Ane Elordi Korrikako arduradunak nabarmendu du "Euskara gara" ozen oihukatzeke unea dela; ekimena Durangaldera ailegatzeko gogotsu dagoela dio

sem, okzitaniera bultzatzeko egiten duten lasterketako kideak izan ziren, eta horregaz ere oso pozik gaude.

Korrikak irudi ikusgarriak utzi ditu. Hasieragaz batera egon ziren ika-miken aurrean, eskertzekoa izango da babes hori ikustea.

Bai, garaia delako "euskara gara" ozen oihukatzeke. Argi daukagu euskarak egiten gaituela euskaldun eta Euskal Herri euskalduna behar dugula euskaraz bizitzeko, eta, besteak beste, beharrezkoa da instituzioek hizkuntza politikak bultzatzea. Pizkunde bat gura

badugu, euskaltzaleok eta euskaldunok batuta egon behar dugu.

Bigarren Korrika duzu koordinatzaile lanetan. Esperientziak erraztu egiten dizu lana, ala kontrara, bertigo handiagoo ematen dizu?

Ni bat naiz, baina taldean lan egiten dugu. Nazio mailako talde bat gara, hainbat ediziotan lan egin duguna. Batzuk urte gehiagoan, eta beste batzuk berriagoak gara. Horrela lan eginda asko ikasten da, talde oso baten babesa daukazulako. Lehenengo urtean alde batetik bestera ibiltzen zara, baina

apurka-apurka zure bidea egiten duzu gero. Bigarren urtea dut koordinatzaile lanetan, baina aurretik ere ibilita nago beste lan batzuk egiten, prentsako taldean eta furgonetetako taldean. Beraz, Korrika bera ondo ezagutzen dudala esango nuke. Horrek abantaila apur bat ematen dit; baita lantaldea ezagutzeak ere, konfiantza handia ematen didalako. Dena ondo doan neurrian, ez dut gehiago eskatzen.

Bestalde, gizartea zelan dagoen ikusita, ez dugu Korrika bere horretan ekintza isolatu legez

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

EUSKARA

ERRITMO BIZIAN

durango
HADE
UDAL EUSKALTEGIAK

24.korrika **Euskara gara**

DRT
DURANGO RUGBY TALDEA

Euskara gara

24.korrika **Euskara gara**



24.korrika **Euskara gara**

24.korrikarekin!

Iurreta
Durango Udalak



Ane Elordi, Zornotzan.

ikusten. Oldarraldiaren aurka-ko mobilizazio batetik gatoz eta Kontseiluak beste deialdi bat egin du ekainerako. Eta tartean Korrika dago. Eta, besteak beste, hainbat helegite aurkeztu da hizkuntza eskakizunen aurka; euskaldunon hizkuntza eskubideak giza eskubideak diren neurrian, horren aldarrikapena ere egiten da.

Testuinguru horretan, Errigora da omendua, eta Korrikaren hasiera ere euskara baztertuago dagoen zonalde batean izan da.

Bai, eta guretzat ere erronka bat izan da Atharratzetik abiatzea, ez delako batere erraza izan muntaketa aldetik; gainera, Korrikaren hasiera horrelako eremu txiki batean izatea ere ez da erraza. Hegoaldean jaieguna izan da eta dena batu da. Aurreko edizioan, Azterketak Euskaraz omendu genuen,

"Mugarri historiko bat da Atharratzeko plaza euskararen alde horrela betetzea"

euren borrokaren bozgorailu lege, eta jende gehiagok eza-gutzeko. Edizio honetan, Errigora izan da omendua, ikusten dugulako jende askorentzat oraindino ezezaguna dela. Urte birik behin gure balioak lehen lerrora ekartzen ditugu. Eus-kara ardatz duen gizarte hone-tan euskaraz bizi gura dugu, eta, gainera, Errigorakoekin batera elikadura burujabetza bultzatzen dugu, eta ofizialta-suna ere lehen lerrora ekarri gura dugu.

AEKn igartzen duzue aldaketarik Korrika osteko izen emateetan?

Korrika osteko matrikulazioa ona izaten da. Aurrekoan, Korrika Irunitik hasi zen, eta ikusten dugu ez duela egun bateko rol hori betetzen, gero arrastoa uzten duela, eta Irunen aktibazio txiki bat izan dela euskalduntzean; Gipuzkoako bigarren hiririk handiena da, Donostiaren ondoren. Aurten ere, fokua hamabigarren egun horretan ipintzen ahalegindu gara. Jende asko gerturatzen da Korrikaren bitartez euskarara, eta konpromiso horregaz jarraitzen ahalegintzen gara gero. Orduan, Korrika amaitu

osteko egunean balorazioa egiten dugu beti. Horretan, aipatu gura dut guk ere konpromisoa hartzen dugula apirilaren 22an jendar-teari euskarazko klase bat doan eskaintzeko; horregaz batera, maiatzaren 21ean mintzodromoak egingo ditugu AEKk euskaltegiak dituen herri guztietan. Modu bat da Korrikara datozen denei esateko ez dela nahikoa euskararen alde egotea bakarrik, euskaraz berba egin behar dela.

Korrika Durangaldera helduko da zapatuan. Gogotsu zaude?

Bai! Herri kirol taldeko kilometroa Miotan hartu dugu aurten, eta bertan parte hartuko dut. Zornotzan ez dakit egon ahal izango naizen. 04:00etan iritsiko da bertara, eta 09:00etan Bilbon egon behar dugu, beraz... Baina bakoitzaren eskualdera heltzea beti da berezia, ezta? Urte askoan esatari aritu naiz, mikrofonoa eskuan, Korrika Zornotzatik ibili den tartean, eta ez banago horren falta igarriko dut. Gainera, Korrikak jende asko batzen du gure eskualdean. Gakoa, esan dudan moduan, hamabigarren egun horretan dago, euskarara hurbiltzeko eta urtean zehar konpromiso hori hartzeko.



Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Idoia Gartzia zaldibartarra Korrikazale amorratua da. Korrikaren petoak maitasun handiz gordetzen ditu, "altxorra" direlako beretzat. Aurten senideekin parte hartuko du Korrikan, Areition behera. Eta ez du baztertu Durangon ere parte hartzea eta Bilboko amaierako jai erraldoira joatea.

Zergaitik erabaki zenuen euskara ikastea?

Zaldibarren jaio nintzen arren, nire familia ez zen euskalduna. Gurasoek ez zekiten euskaraz, baina nik txiki-txikitatik izan nuen euskara ikasteko grina. Azken finean, bertakoa izateko eta euskalduna izateko, euskara ikasi behar nuelako. Erabaki naturala izan zen. Eskolan A ereduan nenbilen eta ikusten nuen hainbat lagun euskaraz zebiltzala. Nekien apurra erabiltzen nuen haiekin, baina oso argi neukan euskara ikasi gura nuela.

Eta halantzik, AEKn eman zenuen izena.

Txikitan sartu nintzen AEKn, Zaldibarko gau eskolan. 13-14 urte izango nituen orduan, eta neu nintzen ikaslerik gazteena.

"13-14 urtegaz hasi nintzen gau eskolan; ume bakarra nintzen nagusi artean"

IDOIA GARTZIA MARTINEZ AEK-KO IKASLE OHIA

Idoia Gartzia ez zuen etxean euskara jasotzeko zortetik izan, baina txikitatik izan zuen euskalduntzeko grina. Gaur egun euskaraz bizi da

Pentsa! Ume bakarra nagusi guztien artean! Hori ere oso naturala izan zen. Umea nintzen, oso zaindua eta oso maitatua sentitzen nintzen klaseetan. Eta azpimarratu beharra daukat pertsona batek, Mila Elespek, izugarri lagundu zidala. Zaldibarko gau eskolako irakaslea zen, eta berari eskerrak daukat orain euskara. Gero, Durangoko AEKra joaten hasi nintzen, eta barnetegietan ikasi nuen uztailan. Bien bitartean, Elespek Zaldibarren jarraitu zuen hementxo gurasoak euskalduntzen.

Beti diot AEK bihotzean daramadala.

AEK bihotzean.

Beti sentitu naiz familia batean legez, joan nintzen lehenengo egunetik. Urte horiek gozamen hutsa izan ziren niretzat. Julio

"Bet harro esan dut euskaldun berria naizela; ez dut etiketa horren pisurik sentitzen"

Aranguena izan zen nire lehenengotariko irakaslea, eta lagun handiak egin ginen. Egia esanda, AEKko kide guztiekin primerako hartu-eman izan dut. Dena delakoagaitik euskaltegira bisitan joaten naizen aldiro, etxean sentitzen naiz, oso gustura.

Ibilbide horri eskerrak, hizkuntza ohiturak aldatu dira zugan?

Gaur egun euskara da gure etxeko hizkuntza. Euskaraz bizi naiz senarragaz eta semeagaz. Lanean ere badarabilt, hezitzailea naiz eta.

Inoiz sentitu duzu 'euskaldun berri' etiketaren zamarik?

Gaur egun ez. Beti harro esan dut euskaldun berria naizela. Hori bai, garai batean, *maketoa* nintzen. Izan ere, gurasoak kanpokoak izanda, Burgosekoak, eta halakoak *maketook* ziren. Momentu batzuetan, kostatu egin zitzaidan integrazio hori lortzea, eta askotan entzun behar izan dut "O! Zure gurasoak Burgosekoak izanda zeinen ederto egiten duzun euskaraz". Bestalde, bazegoen min handia eragiten zidan zerbait. Euskara zekitenek ez egitea, ez erabiltzea. Ezin nuen ulertu euskara zekitenek ez erabiltzea ikusita niri zenbat kostatzen zitzaidan ikastea. "Altzor bat izan arren, erdaraz egiten duzu? Benetan?" pentsatzen nuen. Ez nuen ezer ulertzen.

Alde horretatik, zelan ikusten duzu Zaldibar?

Zaldibar euskalduna da, baina gainerako lekuetan legez egoera ez da erraza. Umeek badakite, baina eskolatik irteten direnean askotan ez dute erabiltzen. Seimearen kuadrillan ikusten dut hori. Denek dakite euskaraz zoragarri, baina gero erdarara



jotzen dute euren elkarriketetan. Baina, tira, nik kalean denekin egiten dut euskaraz, denetan zein lagunekin. Euskara entzun entzuten da Zaldibarren, baina hemen ere borrokan gailtza hizkuntzari eusten.

Korrika laster sartuko da Zaldibarren eta Durangaldean. Zelan bizi-ko duzu?

Ez dakit zelan azaldu: Korrika, niretzat, altxor bat da. Hunkitu egiten naiz. Oso sentibera naiz berez, eta gogo biziz nago ikusteko, Korrikaren barruan sartzeko, gainerako herrietan korrika egiteko.

Beste herri batzuetara ere joaten zara Korrikara?

Bai. Atharratzeko irteeran ezin izan nintzen egon, baina ahal dudan guztietan joaten naiz irteerara. Berdin beste herri batzuetan parte hartzera ere. Aurrekoan, adibidez, Zumaian parte hartu nuen. Izan ere, Korrika hizkuntza baten alde egiten den egitasmo berezia da munduan, zerbait bakarra. Hor erakusten da zenbat maite dugun hizkuntza hau, nahiz eta gero, egunerokotasunean, agian ez den hainbeste ikusten. Baina ekintza bera, jarraitzaile kopurua, izugarria da.



Idoia Gartziak Korrikako petoak gorde ditu urteetan.

Bilboko amaieran ere ikusiko zaitugu?

Jakina! Zalantzarik barik!

Korrikazale amorratua zarela erakusteko, beste adibide bat: elkarriketa honetara makina bat petogaz agertu zara.

Hona ekarri dudana nire altxor txikia da: orain arte erabilitako peto guztiak dira. Korrikaren ia edizio guztietako petoak, lehenengoz parte hartu nuenetik. Nire lehenengo petoa 5. Korrikakoa da. Zaldibarko gau

eskolan ikasle nintzela jantzi nuen, eta orduantxe hartu nuen lekukoa lehenengoz. Momentu hartan ez dakit oso kontziente nintzen Korrikaren esanahiaz. Edozelan ere, pozarren eraman nuen lekukoa. Gero, denbora

batera konturatu naiz horren indarraz. Izan ere, urteak aurrera doazen arren, emozio berdina sentitzen dut. Ikusten dut Korrika gozamina dela denontzat. Bestalde, etxean Korrikako lekukoaren erreplika daukagu. Egurra lantzen dugu, eta Carlos Pradrerak lekukoa egin zuen. Zaldibarko eskolako umeek lekuko hori erabiltzen dute Korrika txikian. **Zer du Korrikak gu hainbeste hunkitzeko?**

Korrikak daukana da euskara-gazko maitasunak batzen gaituela. Eta beti arrisku giro horretan dagoenez, ondo babestuta ez dagoenez, oldarraldien aurrean gure sentimendua adierazteko eta azaltzeko momentua izaten da, gure lurragazko eta hizkuntzagazko sentimendua adierazteko unea.

Amaitzeko, zer esango zenieke zaldibartarrei Korrika datorrela eta?

Irten daitezela kalera, disfrutatu dezatela, animatu dezatela Korrika, parte hartu dezatela. Eta egon daitezela AEKren eta Korrikaren ondoan. Izan ere, egundoko altxorra da, disfrutatzea.



Zaldibar Elizateko Udala
Tel.: 946 827 016 · www.zaldibar.eus

Atharratzetik Bilbora 2026ko martxoaren 19tik 29ra

Euskara gara
korrikarekin bat!



Joseba Derteano DURANGALDEA

Joseba Irazabal Barrenetxeak (Otxandio, 1961) 15. Korrika du aurtengoa furgoneta taldean. Azken hamabi urteak taldeko kapitain eman ditu. Aurten arduradun eta furgoneta taldeko kide izateari utziko dio. Joana Txarterina Goikuriak (Zornotza, 1981) hartuko du bere testigua arduradun legez. Txarterinak hirugarren Korrika du aurtengoa.

Joseba, zergaitik utzi diozu furgonetako lantaldeko kide izateari?

Joseba Irazabal: Noizbait utzi behar nion tokia belaunaldi berriari. Askok kostatu zait erabakia hartzea. Nire lehenengo Korrika, hamargarren aldia, Bilbon amaitu zen. Aurten ere Bilbon amaituko da eta zikloa ixteko modu aproposa zen. Iaz hartu nuen erabakia eta Aneri [Elordi, Korrikako arduraduna] jakinarazi nion. Norbaiti esan ezik ez nuela utziko sentitzen nuen. Aurreko Korrikan berdina gertatu zitzaidan, 23. Korrikak azkena behar zuen, eta hemen nago! **Zelan egingo diozu aurre urte birik behin Korrikan ez egoteari?**

J.I.: Korrika bera uzteko asmorik ez daukat. Ekipatutako fur-

"Familia giroa dugu; urte birik behin baino ikusten ez duzuna zugaz bizi izan dela sentitzen duzu"

JOSEBA IRAZABAL ETA JOANA TXARTERINA
KORRIKAKO FURGONETA TALDEA

Irazabalek furgoneta taldea eta arduradun kargua utziko ditu; Txarterinak hartuko dio lekukoa

goneta bat erosteko plana daukat, eta Korrika dagoenean han ibiltzea. Neure kabuz ibiliko naiz: tarte batzuetan korrika, besteetan furgonetan... Esan diet taldekideei "jubilatuko naiz, bai, baina hurrengo Korrikan zuen atzetik ibiliko naiz nire furgonetan, zuen lana

kritikatzen!" (barreak). Serio esanda, behar banaute laguntzeko prest izango naute, baina ez naute beharko, oso lantalde ona dago eta.

Joana, zelako Korrika izango da zuretzat aurtengoa?

Joana Txarterina: Desberdina izango da. Inoiz baino adiago

egon beharko dut eta gauza gehiagori ipini beharko diot arreta. Ilusio eta gogo handiz nago eta ondo egitea espero dut. Zorionez, lantaldea oso ona izaten da beti. **Batak bestearen zer dohain azpimarratuko zenukete?**

J.I.: Joanak oso tratatu onak dauka jendeagaz. Hori garrantzitsua da, eguneko 24 orduetan elkarrengaz egoten garelako. Korrika bi daramatzat beragaz eta hasieratik konturatu nintzen balio zuela. Gainera, oso pertsona antolatua eta ordenatua da. Nire kontuak eraman izan ditu, despistatua naiz eta. Beste dohain bat ere azpimarratuko nuke: erabaki arinak hartzen trebea da. Jendeak kontuan hartzen du berak esandakoa.

J.T.: Joseba lider ona da, badaki taldea sortzen. Lider on batek horixe egin behar du, taldearengan konfiantza izan. Gutariko bat da eta edonoiz eta edozegaz jo dezakezu berarengana. Beti entzun eta lagunduko dizu. Joseba niretzat ez da arduraduna bakarrik, laguna ere bada.

J.I.: Beti konturatu naiz arduradun lana ez zela bokazionala niretzat, jendea kudeatzea eta hori guzti hori. Beti sentitu naiz



Joseba Irazabal eta Joana Txarterina, Korrikako furgoneta

erosoago zelaiko lanean, gauzak egiten, gauzetaz arduratzen baino. Baina arduradun lana egoitu zait askotan eta nire onena ematen ahalegindu naiz beti.

Amorebieta-Etxano korrikarekin bat

Egin korri euskararen alde

Martxoak 29 igandea · 03:38

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua





netaren aurrean.

Korrikan furgonetako taldean aritzea fisikoki ala mentalki da gogorragoa?

J.I.: Mentalki esango nuke. Fisikoki ez da hain gogorra, momentu batzuk kenduta. Baina

batez ere burua da kontua, eta sortzen diren ezustekoetara egokitzen jakitea, espero ez duzun hamaika kontu sortzen da eta! **Gaueko txandak dira gogorrenak?**

J.I.: Segun eta zenbat lan dagoen. Sarritan lan gutxi egotea gogorragoa da, gaua luze egiten delako. Esaterako, Ipar Euskal Herrian hangoek eramaten dute Korrika, guk furgoneta bakarrik; hau da, ordu asko ezer gutxi egiten.

J.T.: Gaueko txandek berezitasun polit bat dute: taldekideok bakarrik egoten gara. Bestela, bat dela edo bestea dela, hainbat jende dago, baina gauetan gu geutara gaude. Berba egiteko aukera dugu, gure arteko hartu-emana sendotzen da...

Korrikako zein une gogoratzen duzue bereziki?

J.I.: Arrigorriagakoa naiz baina 20 urte daramatzat Otxandion bizitzen. Beraz, 2017an Korrika Otxandion hasi zenekoa berezia izan zen. Orduan, furgoneta taldeko ardura eta lehenengo eguneko ardura, biak izan nituen. Oso gogorra! Konparazioan, ondorengo egunak oporrak izan ziren, bainuetxera joatea legez. Otxandioko hasiera ikaragarria izan zen, plaza bete-beterik. Gainera, otxandiarrek oso aktibo ibili ziren prestaketan. Herriak 1.300 bat biztanle ditu eta 300 boluntario ibiliko ziren.

J.T.: Niretzat emozionantea da Korrika jaioterri dudun Zornotzatik eta egun bizi naizen Zea-nuritik igarotzen denean. Baina niretzat momenturik emozionanteena aurreko Korrikan amagaz elkartu nintzenean izan zen. Alargunduta, gaixorik daramatza urte asko. Zornotzan zain nuen eta arrapaladan beragana irten nintzen. Mikrofo-

notik abisatu zioten, ni negar baten... Ingurukoek esan zidaten oso momentu polita izan zela. Beti gogoratuko dudun momentua da.

Zelakoa da hartu-emana gainerako kideekin?

J.I.: Oso ona. Batzuk sarritan elkartzen gara, beste kontu batzuegaitik ere batzen gare-lako. Baina batzuekin urte birik behin baino ez gara elkartzen eta elkarregaz bizi garela ematen du, betiko kua-drilla garela. Hurbileko hartu-emana dugu, familia girokoa.

J.T.: Zortedunak garela esango nuke. Denbora batean norbait ikusi barik egon eta gero, besarkada batez agurtzen duzu berriro ikustean. Lantaldeko neskak oporretan ere joan izan gara elkarregaz. Korrika oso esperientzia intentsoa da, eta gure artean giro ona badago askoz ere eramangarriagoa da. Gauza bat azpimarratu gura nuke. Korrikaren atzean jende asko dago lanean. Eskolak ematen dituzten bitartean, euskaltegietako irakasleak Korrika prestatzen dabiltza, esaterako. Ez gara herririk herri furgonetan gabiltzanok bakarrik.

"Gaueko txandetan gu geutara egoten gara; gure arteko hartu-emana sendotu egiten da"

"Joseba lider ona da eta badaki taldea sortzen. Lider on batek horixe egin behar du"



Durangaldea eraikitzen dauen txinparta

Eitua industrialdea, 60
BERRIZ, Bizkaia
Tel.: 94 682 41 75
evec@evec.es



Aritz Maldonado IURRETA

24. Korrikaren edizioak nobedade ugari izan du eta horietariko bat Gazte Euskaltzaleen Sareak aurkezturikoa da. Iazko abenduan, tokian tokiko Korrika batzordeetan parte hartzeko deia egin zieten gazteei, eta, gazte olatua ikusarazteko, zapi bereizgarria ere sortu dute. Korrikak irauten duen egunetan zapia janzteko deia egin dute. Euro bateko prezio sinbolikoan eskuragarri egongo da zapatuan bertan, Korrika Durangaldera helduko den egunean. Landakon egingo duten egitarauaren barruan ipiniko dute postua. ANBOTO Durango-ko Gazte Euskaltzaleen Sareko Jone Gutierrez kideagaz batu da. Gaztea gogotsu dago Korrika Durangora heltzeko. "Batzordeetan hutsune bat dagoela uste dugu eta gazteen ikuspuntuak kontuan hartze aldera parte hartzen dugu", azaldu du Gutierrezek. Beraz, hainbat gazte beharizan horri erantzuteko asmoagaz batu da batzordera, bai Durangon eta baita Euskal Herriko beste hainbat tokitan ere.

Korrika dela eta, Gazte Euskaltzaleen Sarekoek gazte dinamika ipini duzue martxan. Zertan datza?

"Durangaldean ez ezik, Bilbon ere gazte olatua irudikatu gura dugu Korrikan"

JONE GUTIERREZ GOROSTIAGA
GAZTE EUSKALTZALEEN SAREKO KIDEA

Gazte Euskaltzaleen Sarekoek dei egin dute gazteen kilometroetara zapi gorria ipinita batzeko

Gazteak mobilizatu eta gazteak lehenengo lerroan ipintzea gura dugu, eta, horretarako, dei bat egin dugu; alde batetik, gazteek Korrika batzordeetan parte har-

tzeko. Bestalde, gida moduko bat ere prestatu dugu, ideien bitartekari moduko bat. Bertan, euskararen egoera gazteen ikuspuntutik azaltzen da eta zenbait




24.korrika æk
KORRIKAREKIN BAT!

IZURTZA UDALA
Tel: 946 813 548
www.izurtza.net

24. KORRIKAREN AGENDA

MARTXOA

27
OSTILARRA
Antzerkia: Hurrengo geltokia
20:00 Kultur Etxea

28
LARUNBATA
Diskorrika jaialdi musikatua
18:30 - 20:00 Olakueta Plaza
Trikipoteoa herrigunean
20:00
Badator Korrika!
23:00ak aldera

Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen

Smurfit Westrock
Nervión

Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak



ekintza proposazen da, norberak bere herrian edo inguruan egin ahal izateko modukoak. Adibidez, Korrikan Gazte kilometro bat antolatzea. Gazteok lehenengo lerroan gaudela erakusteko modu ona iruditzen zaigu. Egitarau propio bat antolatzea ere bazen beste aukeratariko bat. Saretzeko gai garela erakutsi gura dugu, eta lehenengo lerro horretan gaudela. Neurri batean, lortu dugula uste dugu.

Gazteen zapia ere atera duzue.

Zapia gure elementu bereizgarria da, gazte sare horren erakusle nagusietariko bat. Atharratetik abiatu osteko lehenengo kilometroetan asko ikusi da, adibidez. Durangon ere antzeko irudi bat bilatzen dugu; gazte kilometroan, gazteak zapiekin korrika ikustea gura dugu. Bilborako ere dei berdina egin da, martxoaren 22rako. Guztiok batera, gazte olatu bat erakusteko.

Korrika batzordean ere parte hartu duzu. Egitaraua antolatu duzue zaturako.

Bai. Korrika batzordeari ekarpena egiten ahalegindu gara, gazteon ikuspuntua ere kontuan hartzeko.

Inoiz entzun dugu gazteak ez zaudetela euskalgintzan edo beste gai batzuetan nahikoa inplikaturata.

Gazteok sekulako potentziala dugu euskararen aldeko borrokan. Alde batetik, etorkizuna garelako, eta, bestetik, gure artean ere berba egiten dugu-lako. Orain berpizkunde bat dagoela esango nuke, bai euskararen erabileraren inguruan eta baita kontzientzia aldetik ere. Korrikan bertan, esango nuke gazte gutxi parte hartzen dugula batzordeetan, eta hutsune hori betetzea garrantzitsua da. Aurrerapauso bat da, gazteon ikuspuntua kontuan hartu eta mobilizatzen lagunduko duelako, eta hori positiboa delako euskaren aldeko borrokan.

Baduzue hartu-emanik Durangaldeko sareko beste norbaitegaz?

Bai. Adibidez, Zornotzan ere Gazte kilometroa egingo dute. Horrek erakusten du Durangaldean badagoela gazte kopuru majo bat euskaragazko atxikimendua duena. Beraz, deia zabaltzen dugu Durangoko Gazte kilometroan zein Bilbo-ko deialdian parte hartzeko.

"Korrika batzordeari ekarpena egiten saiatu gara, gazteon ikuspuntua ere kontuan hartzeko"

"Gazteok saretzeko gai garela erakutsi gura dugu, eta lehen lerroan gaudela ere bai"

→ Egunero, milaka pertsonak lan egiten dugu Euskadiko ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jaso dezaten eta konfiantzaz haz daitezen.



GURE HEZKUNTZA,
GURE ETORKIZUNA.

HEMEN
ORAIN
ZUREKIN

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



"Orain artekoa ikusita, Korrika mundiala izango da"

Korrikako Durangaldeko arduradunek prest dute dena. Ondo baino hobeto ezagutzen dituzte euskararen aldeko lasterketaren barruko zirrikituak

Maialen Zuazubiskar DURANGALDEA Korrikaren antolakuntza herri-rik herri eta auzorik auzo sare-tzen da. Durangaldeko AEKko kideak dira hari horiek guztiak josten dituzten pertsonak. Korrika Durangaldera heltzeko ordu batzuen faltan, zurrumbilo betean sartuta daude.

Hasteko eta behin, zelan doa Korrikaren prestaketa?

Aspaldi hasi genuen prestaketa, baina, egia esanda, honek ez du etenik. Korrika bat amaitzean, balantzea egin eta ia segituan hurrengo Korrika prestatzen hasten gara; beraz, beroketa lanak eginda dauzkagu. Lanik mardulena eginda daukagu: herriak antolatu, eragileen ekarpenak kudeatu, lekukoa nork

eta non hartu erabaki, kultur egitarauak eta Korrika txikiak antolatu... Lanik gogorrena eta estresagarriena da hori, baina esker onekoa ere bai, herriaren inplikazioa eta babesa sentitzen ditugulako. Beraz, dena ondo doa eta furgonetaren argiak ikusteko irrikan gaude. Kanpotik festa handi bat legez ikusten da, eta festa handi bat da izan, baina atzean lan handia dago.

Zelakoa da Korrika antolatzea eskualdean?

Euskalergia daukagun herrietan (Durango, Elorrio eta Zornotza), jendeak badu erreferente bat, eta errazago etortzen da gugana. Horrek erraztu egiten du antolaketa. Gainerako herrietan beti daukagu konplizeren bat: ber-

takoa den edo bertan bizi den irakaslea, udaleko teknikaria, ikaslea edo ikasle izandakoa... Horien guztien laguntzarik barik gure lana askoz ere gatzagoa eta gogorragoa izango litzateke. Beraz, eskerrik asko denei. Korrika antolatzeko, herrietan batzordeak sortzen ditugu. Deialdi zabala egiten dugu eta normalean jendeak ondo erantzuten du. Euskaltegirik ez dugun herrietan oso garrantzitsua da batzordeak eratzea, ez delako berdina herria dinamizatzen dabilena kanpotarra edo bertakoa izatea. Gu hor gaude, baina bertakoen laguntza ezinbestekoa da. Ibilbidea markatzen laguntzen digute, lekuko eramaileak bilatzen, herrietako ekintzak anto-

latzen, korrika txikiak egiten, materiala saltzen... Herriak antolatu du beti Korrika, auzolanean, eta aurrerantzean ere horrela izango da. Ezin dugu beste era batera irudikatu.

Zelan bizi dituzue Korrikaren aurreko egunak?

Aste batzuk lehenago, amaitzeko desiratzen, eta hasiera eguna hurbildu ahala gauzak egiteko denbora falta dugun sentazioagaz. Gauza asko eginda egoten da, baina beste asko ez. Sentimenduak nahasita izaten ditugu: urduritasuna, ardura, egonezina, nekea, poza, ilusioa, gogoa, negarra... Bua! "Mendi errusiarrean" legez egoten gara, baina denok furgonetaren argien zain.

Zeintzuk dira zuen eguneroko lanak Korrika gerturatzen dabilenean?

Zelan banatzen dituzue ardurak? Korrika pasatzen den herri bakoitzean, gutxienez ardura-dun bat daukagu, AEKko kidea. Beraz, pertsona hori herri horretako zereginak kudeatzeaz arduratuko da. Horrez gainera, eskualdeko arduraduna dago. Arduradun horrek herrietako koordinazioa bermatzen du, herrialdetik zein nazionaletik



Ziortza Aldekoa-Otalora, Mertxe Mugika, Miren Iturriaga

datozen lanak eta berriak partekatzen ditu eta Korrikari eskualdeko ikuspuntua ematen dio, herri bakoitzaren autonomia kontuan hartuta eta denon arteko elkarlana bermatuta. Kide horiek daukate ardura nagusia, baina ardura txikiak

irrintzi zahar bat gure aho gazteetan!

MARIA BITARTEKO IKASTETXEA // 946231626

LOURDESKO AMA IKASTETXEA // 946820056

Ayarza 1949

Ayarza gozotegia korrikarekin bat

@pasteleria_ayarza_1949

Luis Urreagaetxea, II. Zornotza

Tel: 94 673 02 42

Montevideo, 10. Durango

Tel: 94 403 54 19

U3 Arkitektura Teknikoa

Ibaizabal kalea, 1

48230 Elorrio

Tel.: 672 256 352

Eraikuntza-obra

Proiektuen kudeaketa osoa

Obra berria, birgaikuntza, zaharberritze lanak eta legalizazioak

info@u-3.es

24.korrika eek Euskaragara

Akademikoki Bilbon

2026ko martxoaren 19-20an

Korrikarekin bat!



Maetxebarria, Esther Garitaonandia, Ane Abanzabalegi eta Amaia Sarriionandia.

gainerako irakasleekin ere banatzen ditugu: arropa salmenta, Korrika denda, zenbagailuak txukundu, ibilbidea markatu, kartelak ipini... Egitekoak agertu ahala, arduradunon artean antolatzen ditugu eta lanak banatzen ditugu.

Zenbat urte daramatzazue lan hau egiten?

Durangaldeko batzordea osatzen dugun gehienok 30 urte baino gehiago daramatzagu AEKn; beraz, atera kontuak. AEKn hasi orduko ere, gure herrieta-ko batzordeetan parte hartzen

genuen; ondorioz, ondo ezagutzen dugu Korrikaren makineria. Korrikak oso babes gutxi jasotzen zuen garaikoak gara. Instituzioek lepoa ematen ziguten orduan, eta herriaren babesagaitik izan ez balitz ez ginen helduko gaur gauden lekura.

Bakoitzak zer lan egiten duzue?

Eskualdeko herrietako ardura gure artean banatuta daukagu. Gutariko batek ardura orokorra dauka eta koordinazioaz harago unean uneko beharrak egiten ditugu.

Eta beti ibili izan zarete herri mailan erantzuten? Ala furgonetan ere bizi izan duzue Korrika?

Hemen gaudenok, Mertxek izan ezik, eskualdean bizi izan dugu beti Korrika. Mertxek, AEKren koordinatzaile izan denez, beste ikuspegi batetik ikusi du; esan dezakegu tripak sakonetik eza-gutu dituela. Besteok eskualdean lan egin dugu. Korrikari dago-kionez, aurreko kotxean joan izan gara inoiz, eta Durangaldeko AEKko irakasle batzuk furgonetan ere ibili dira 10 bat egunez. Eurei ere egin behar zeniekete elkarriketa.

Aurten furgonetan ikusiko zaituztegu?

Auskalo, baina gure kide bat bai, esataria izango da eta. Azken aldietan, Korrika eskualdean ibili den artean, Irati eta Miren ibili dira animatzaile, mikroa eskuan. Oraingoan ez dugu erabaki nor joango den; gutariko bat, akaso. Furgonetan ez bada, aurreko kotxean joango gara Korrikari bidea erakusten.

Badago bereziki hunkitzen zaituzten momenturik?

Herrian, Korrika datorrela igartzten denean lehenengo zirrara sentitzen da: klaxon hotsa, urru-

tiko oihuak, badator-badator... Furgoneta ikustean, bere atzeko tropela agertzen denean, orduan zirrara eta urduritasuna malko bihurtzen dira. Horixe da unerik hunkigarriena. Hasiera eta amaiera ere oso bereziak dira. Hor ere emozioen koktela agertzen da.

Aurten, Korrika zapatu gauean pasatuko da eskualdetik. Zelako erantzuna izango duela uste duzue?

Orain artekoa ikusita, mundiala izango da! Goizaldeko orduetan pasatu arren, lagun mordoa agertu zaigu lekukoa eramateko prest. Horrek pista ematen digu kalera jende asko irtengo dela aurreikusteko. Ez da goizaldean pasatzen den lehenengo aldia, eta azken gaua ere behin baino gehiagotan tokatu zaigu. Durangaldearen erantzuna betikoa izango da, beroa.

Zer esango zeniekete herritarrei?

Korrika ez da lasterketa bat. Korrikak Euskal Herri osoa zeharkatzen du euskara azken txokoraino eramateko. Aturritik Ebro-raino EUSKARA GARA eta hori da Korrika, aldarri horren eramaile. Beraz, Durangaldeko herritarrei eskatzen diegu mezua jaso eta zabaldu dezatela. Etorri Korrikara, etorri euskarara.

"Durangaldeko herritarrei eskatzen diegu mezua jaso eta zabaldu dezatela"

"Goizaldeko orduetan pasatu arren, lagun mordoa agertu zaigu lekukoa eramateko prest"



Eitua Ind. Pol., 63,
48240 Berriz
Tel.: 943 75 21 00

AUXILIARES
HIRUKOBAT, S.L.

Eitua poligonoa, 52- 4F · Berriz
946 225 715



Aitziber Basauri DURANGO

Ainhua Zubizarreta Zuriturri-za (Durango, 1999) Berbaro euskara elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea eta udalekue-
tako koordinatzailea da, eta Eneritz Urrutibeaskoa Elordi (Markina-Xemein, 1991) ANBOTO proiektua babesten duen Anbotokidea. Elkarregaz eramango dute 24. Korrikaren lekukoa Durangon. Euskararen aldeko ekimenaz harago euskarari indarra ematen jarraitzea deitu dituzte herritarrak. **Badator Korrika. Zelan hartu duzue Korrikaren lekukoa eramateko proposamena?**

Ainhua Zubizarreta: Sorpresagaz hartu nuen, ez nuelako espero. Hala ere, segituan esan nuen baietz, birritan pentsatu barik. Ilusioagaz eta oso pozik nago Berbaro elkartearen ize-
nean lekukoa eramango dudalako.

Eneritz Urrutibeaskoa: Pozik. Egia esanda, ANBOToren ize-
nean Korrikaren lekukoa eramango nuela esateko deia jaso nuenean urduri ipini nintzen. Anbotokide legez lekukoa eramateko lehiaketan izena eman nuen, baina ez nuen espero

"Korrikaren lekukoa hartzeko unea irudikatzeak ilusioa eta emozioa sortzen ditu"

AINHOA ZUBIZARRETA ETA ENERITZ URRUTIBEASKOA LEKUKO ERAMAILEAK

Berbaro elkarteak eta ANBOTOk elkarregaz hartuko dute Korrikaren lekukoa. Euskara erabiliz gure hizkuntza indartzera deitu dute lekuko eramaille biek

deitzea. Orain, urduri ez ezik, oso pozik nago.

Inoiz eraman duzue Korrikaren lekukoa?

E.U.: Bai, birritan eraman dut, Markina-Xemeinen. Domekan, hirugarrenez eramango dut. 12 bat urte izango nituen lehenengoz hartu nuenean. Herri barruan egin genuen korrika. Eta orain sei urte berriro eraman nuen. Gogoan dut goizaldean pasatu zela, eta bizkor-bizkor zihoala. Egun hartan, herrigunetik irtendakoan hartu nuen lekukoa. Oso gogoan dut. **A.Z.:** Nik ez dut sekula hartu.

Lehenengo aldia izango dut. Ea zelan doan...

Modu berezian prestatu zarete korrika egiteko?

A.Z.: Ez. Lekukoa eramateak bere garrantzia du, urduritasun apur bat ere sortzen du eta nahaste horrek indarra ematen

"Lekukoa eramateak urduritasuna sortzen du, urduritasun positiboa"

E. URRUTIBEASKOA

du korrika egiteko. Motibazio hori nahikoa izango delakoan nago.

E.U.: Hala da! Hainbeste jenderen aurretik lekukoa eramateak urduritasuna sortzen du, baina urduritasun positiboa dela esango nuke. Horrek lagundu egiten du korrika egiten. **Korrika goizaldean pasatuko da Durangotik, ordu aldaketagaz batera. Zelan antolatuko duzue eguna?**

A.Z.: Landako Gunean egingo den afarirako txartela hartu dut lagun kuadrillagaz, eta bertako ekitaldietan parte har-

tuko dugu. Ondoren, Korrikagaz bat egingo dugu.

E.U.: Gure inguruan ume txiki asko dago eta ordutegiak ez du askorik laguntzen, baina lagun taldea elkartuko gara eta nonbaiten afalduko dugu Korrikara batu aurretik. Dena dela, ez dugu ezer lotuta.

Zer sentitzen duzue Korrikaren lekukoa eskuan hartzeko momentu hori irudikatzean? Korrika jarraitzen ari zarete?

A.Z.: Gehienbat, emozioa. Egun hauetan, ikastolan zuzenekoak ikusten eta jarraitzen gabiltza ikasleekin, eta hainbeste jende korrika ikusteak ordurik ordu eta gelditu barik ilusioa eta emozioa sortzen ditu.

E.U.: Bai. Gainera, zelanbaiteko harrotasuna ere sortzen du euskalduntasun hori oraindino bizirik dagoela ikusteak.

Baduzue gogoan Korrika barruan bizi izandako esperientzia berezirik?

A.Z.: Azken urteetan lagunekin parte hartu dut Korrikan, baina bereziki gogoan dut Korrikak Ibaizabal ikastolan antolatzen den Udaberri Festagaz bat egin zueneko. Batxillergoa ikasten nenenbilen eta egun osoa jai giroan

UDABERRIKO
ARGAZKI LEHIAKETA

SARIA
EUSKAL
PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO
OTZARA BAT

Bidali zure
argazkia
688 635 041
zenbakira edo
webgunera

anboto

pasatu ondoren Korrikara batu ginen.

E.U.: Gogoan dut Markiña-Xe-meinen gu ere Udaberri Festa baten ondoren batu ginelako Korrikara, goizaldean. Korrikagaz lotuta umetako oroitzapen asko dut, mordoa. Dena dela, Korrika nire urtegunean pasatu zen urtea daukat akorduan batez ere, eta baita orain urte bikoa ere. Haurdun nengoen, eta handik lasterrera ziren jaiotzekoak gure alaba biak.

Korrikak euskararen aldeko kontzientzia pizten du ekimenak irauten duen egunetan. Baina egunerokoan zein da Berbarok duen erronka nagusia, Ainhoa? Zelan ikusten duzue euskararen osasuna belaunaldi berriei dago-kienez?

A.Z.: Durango euskalduntzea da Berbarok elkartaren helburu edo erronka nagusietariko bat, eta, horretarako, hainbat jarduerak eta proiektu garatzen du urte guztian zehar, gazte zein helduei zuzendurikoak. Badaude egunerokoan euskaraz bizi diren durangarrak, baina esango nuke gura baino gutxiago erabiltzen dela euskara. Ematen du belaunaldi berriek



Ainhoa Zubizarreta Berbaroko kidea eta Eneritz Urrutibeaskoa Anbotokidea.

trebetasun falta dutela euskaraz berba egiterakoan.

E.U.: Bat nator Ainhoagaz. Herri txiki batetik nator ni, baina Durangon gura baino gutxiago entzuten dut euskaraz, eta horrek pena apur bat ematen dit.

Eneritz, Anbotokide legez Korrikan

"Eman diezaiozun indarra gure hizkuntzari, bizirik mantendu dadin"

A. ZUBIZARRETA

ANBOTOren komunitate osoa ordezkatzek zer esan gura du?

E.U.: Durangon lekukoa eramateko aukera ezin hobea izan da ANBOTOk eskainitakoa, eta harro eta gustura eramango dut. **Lekukoa eskuan, nor izango duzue gogoan?**

A.Z.: Berbarok euskara elkartea, eurekin umetatik izan dut eta lotura, udalekuekin hasi nintzenetik; eta elkarteko kideak, jakina. Amari ilusio handia egin dio Korrikaren lekukoa nik eramateak eta bera ere oso gogoan izango dut.

E.U.: Momentua biziko dut, baina ANBOTO izango dut gogoan. Euskara bultzatzen jarraitu dezazuen animatu gura zaituztet, astekaria euskaraz kaleratzen jarraitu dezazuen.

Lekukoaren barruko mezua idatzi izan bazenute, zer idatziko zenuten?

E.U.: Erabili dezagun euskara, mesedez. Askok dakigu euskaraz egiten, baina askok ez dute erabiltzen. Horrek pena eta amorrua sortarazten dit askotan.

A.Z.: Bat nator Eneritzegaz. Nondik gatozen eta nor garen kontuan hartuta, herri eta euskaldun legez eman diezaiozun indarra gure hizkuntzari, bizirik mantendu dadin.

Korrika heltzeaz dela, zer duzue esateko irakurleei?

A.Z.: Parte hartu, eta Korrika amaitzean jarraitu euskarari indarra ematen.

E.U.: Bai, jarraitu dezagun euskara erabiltzen.

**% 100
URA GARA**

*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,
inbertituz eta mantenduz.*



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus



"Korrika ordu txikitan ailegatuko denez, egitarauak herria girotzen lagunduko du"

KOLDO ZARATE ONAINDIA EUSKALGINTZAKO MILITANTEA

Aritz Maldonado DURANGO

Koldo Zarate durangarrak Durangoko Korrika Batzordean parte hartu du aurtengo edizioa prestatzeko eta girotzeko. Gogotsu dago Korrika Durangaldera ailegatzeko.

Itzartu eta segituan Korrika nondik dabilen begiratzen duzun horietarikoa zara?

Egia esateko, beti jarraitzen dut dezente, eta azken urteotan zuzeneko, Youtube eta sare sozialetan eskerrak oraindino gehiago. Ezagunen bat dagoela dakidala edo nondik dabilen ikusteko begiratzen dut, jakin-min ez batez ere. Sare sozialetan AEKri eta Korrikari jarraitzen diet, eta, beraz, zeozer publikatzen dutenetan ikusi egiten dut. Asteburu honetan ere ikusiko dut, jakina.

Durangaldera ailegatu arte Korrikan inon parte hartu barik eutsi diozu?

Zapatura arte ikusi barik geratuko naizela esango nuke. Internet bidez baino ez dut ikusi aurten. Beste batzuetan, bai, joan naiz norabaitera ikustera, baina aurten ez. Asteburuan Durangora heltzen denean parte hartuko dut, eta domekan badugu Bilbora joateko asmoa, baina ez dakit.

Arraro samarra da hain amaieran batzea Korrikara.

Bai. Beste urte batzuetan herri-tik pasatu eta gero ere izan dugu aukera beste norabaitera autobusean joateko. Aurten dena amaieran egitea egokitu zaigu: Korrika eskualdera ailegatzeko eta amaierako jaira joatea.

Korrika batzordekoek egitarau berezia prestatu duzue zapaturako?

Korrika ordu txikietan helduko denez, egitarauak herria girotzen lagunduko duela pentsatu dugu, bakoitza bere munduan Korrika

noiz helduko zain egon beharrean. Elkarregaz egoteko gune batzuk egongo dira, eta hori ondo dago: afaria egongo da, erromeria, eta zumba ikastaroak ere bai. Eta arratsaldean kale animazioa ere egongo da. Igarriko da ez dela egun arrunt bat izango. Berandu izatera, ondo dago heldu arteko ordu horiek elkarregaz pasatu ahal izatea.

Azken urteetan nahiko ordu deserosoetan igaro da.

Bai, aurreko edizioetan goizaldean igaro izan da, eta ozta-ozta batu izan da jendea korrika egitera, tarte batzuetan behintzat. Aurten zapatua izanik, giro ederra egongo da.

Jendetzak parte hartuko duela aurreikusten da.

Euria ei dator, baina asteburua izanik eta Korrikako azken txanpa gainera... Umeak ere oporretan daude. Esango nuke



jende asko egongo dala, eta gogotsu, gainera.

Euskara baztertuago dagoen eremuetan ibili da Korrika hasieran.

Irudiak ikusita, euskalgintzak babesa igarriko du.

Geroago eta jende gehiagok parte hartu du azken urteotan. Korrikak erakusten du geroago eta jende gehiago dagoela euskararen alde, eta hori oso ona da. Baina ez da horretan bakarrik geratu behar. Jende asko dago euskararen alde, bai, baina euskaraz berba egiten duen jende gehiago behar da.

Sozialki ere garrantzitsua da hori. Mundu guztiak egon gura du, tamaina honetako ekimen edo mobilizazio sozialik ez dagoelako.

Durangoko Euskal Herrian Euskaraz protagonista izan zen azken urteetako argazkirik koloretsuenetarikoa batean. Aurtengo edizioan ere egongo da sorpresarik?

Gaua izanda gatzagoa da, baina badugu zeozer pentsatuta. Gure kilometroa daukagu, eta beti ahalegintzen gara zeozer deigarria egiten. Aurrekoan punk jantzita joan ginen, adibidez.

LASUEN
CONSTRUCCIONES
ERAIKIGINTZA ETA HERRI-LANAK

- Asfaltatzeak
- Urbanizatzeak
- Hondeaketak
- Industria-pabiloiak eraikitzea

34.korrika 2021
Euskara gara

Astola suzua, 68
48220 Abadiño
Tel.: 94 681 40 36
clasuen@lasuen.com
www.construccioneslasuen.com

BUREAU VERITAS
Certification

aek
euskara praktikoa

Euskara gara

Maila guztiak, Berbalagun, Mintza taldeak...
Durangon, Zornotzan, Elorrión, Berrizen eta Abadiñon

ASEGUROAK
LAUROK
zornotza, s. l.

Mota guztietako aseguruak.
Norbere neurria egokituta,
etorri izaskun eta Jone bisitatzera!

Korrikarekin bat!

Kalea, Zazpila Gallartzagoitia Kalea, 11, 48340
Tel: 946 308 875 • 653 545 543
Amorebieta-Etxano, Bizkaia

GOZOTEGIA
gozatu
ONDEGIA

Ermodo, 11 Durango
946 201 663
661 40 14 00

#Gozatu Gozotegia @gozatugozotegia

"Mantentze-lanetako kideon betebeharra Korrikak aurrera egin dezan bermatzea da "

MARKEL ATUTXA KORRIKAKO MANTENTZE-LANETAKO KIDEA

Ekaitz Herrera BOLUNTARIOAK

Korrikako furgonetei gasolina botatzea, erroberak puztea, ezusteko matxurak konpontzea... Markel Atutxa zornotzarra, Korrikako mantentze-lanetako kideetarik bat, halako zereginetan dabil egunotan batetik bestera Korrikan, furgonetetan ezustekorik gertatu ez dadin. Atutxa Zornotzako Urtza tabernako arduradunetarik bat ere bada, eta sorterrian egingo du Korrika, Luis Urrengoetxea kaleko tabernariarekin batera. Era berean, Kittu taldeko atabalaria denez, Zaldibarren ere arituko da Korrika ailegatu aurreko orduak giroten.

Beraz, mantentze-lanetarako taldeko kideek 24 orduz dituzue prest gilitza-ingelesak zein bihurkinak.

Halantzik gabilta: furgonetak ondo daudela begiratzen, gasolina botatzen, erretako argi fo-

kuak aldatzen zein soinu ekipo-ko arazoak konpontzen. Azken finean, horixe da gure betebeharra: Korrikak aurrera egin dezan bermatzea. Berez, Korrikan beti doaz furgoneta bi. Aurretik bata eta atzetik bestea. Gurea, mantentze-lanen taldeko autokarabana, atzerago doa.

Autokarabanan zoazte? Orduan, erreminta artean belarriak tapatzeko zerbait eta kafe makina sartuko zenituzten!

Jakina! Kafe makina, derrigor. Hori beti. Hor daukagu, entxufatuta. Eta lo egiteko tapoiak lehenengo egunetik daramatzat motxilan. Izan ere, Atharratzen, Korrika hasi bezperan, 30 lagunek egin genuen lo gela berean! **Zelan batu zara mantentze-lanetako taldera?**

Talde horretako kideak lehenagotik ezagutzen nituen. DJ Bull bera, esaterako, lantaldeko kide

da, eta laguna dut. Eta komentatu zidan laster erreleboa behar-ko zela mantentze-lanetarako taldean. Era berean, Ane Elordi zornotzarra ere ezagutzen dut, Korrikako koordinatzailea. Batak zein besteak Korrikan parte hartzera gonbidatu ninduten. Furgonetan muntaketan egon nintzen, gauzak zelan egiten diren ikasten. Mantentze-lanetarako ikasketak egin nituen, eta oinarritzko gauzak menperatzen ditut, elektrizitateari loturikoak. Lantaldeko beste kide batzuk abilagoak dira mekanika arloan.

Sentitzen duzu ardurarik eta presiorik?

Ardura apur bat bai, baina lasai nago, orain arte Korrika askotan ibilitako jendea daukadalako inguruan. Korrika berezia bada berez, aurtengoa oraindino bereziagoa da nire-



Markel Atutxa Atharratzeko plazan, Korrika abiatu aurretik.

tzat. Korrika jendetsua izatea gura nuke, orain arteko jendetsuena.

Aurten, Zornotzako kaleetan ikusiko zaitugu korrika?

Badut arineketan egiteko asmoa. Korrika goizaldean igaroko da Zornotzatik, eta seguruenik lo gutxi eginga hartuko dugu Bilborako bidea. Izan ere, azken eguna da eta dena puntuan izan behar dugu Korrika Bilbora behar den moduan ailegatzeko. Hiri handietan dena da konplexuagoa, denak egon behar du egoki eta. Dena dela, urtero le-

gez, Zornotzan korrika egiteko asmoa dut. Tabernari legez egingo dut, Luis Urrengoetxea kaleko gainerako ostalariekin batera. Tabernariok urtero erosten dugu kilometroa, eta aurten Urtza eta Far-far tabernetako kideoi egokitu zaigu lekukoa eramatea. Argoitz Argote izango da Urtzako ordezkaria, baina ni ere ondoan izango naiz. Horrez gainera, ordu batzuk lehenago, Zaldibarren egongo naiz Kittu taldekoekin batera, kalejiran atabala jotzen. Zaldibarko kalejira 20:00etan hasiko da.

24.korrika *aek*

UNAI GARAY

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

CUMENOR

ERAIKUNTZA-ENPRESA

Eraberritzeak estalki eta fatxadetan
Metal-egitura arinak
Obra berria eta eraberritze integralak eraikinetan eta nabeetan
Amianto kentzeko lanak

24.korrika *aek*
Euskara gara
2026ko martxoaren 27tik 2026ko martxoaren 27ra

Poligono Alienalde, 10C
48200 Durango

info@cumenor.com
www.cumenor.com

Tel.: 94 621 56 77
www.amiantocumenor.com

IMQ Igurco Korrikarekin

IMQ Igurco

Adinekoentzako zaintza eta arreta
espezializatua

IMQ Igurco Orue **IMQ Igurco Azkuna**

94 630 05 50 Bº San Miguel de Duda s/n 94 630 99 55 c/ José Antonio Aguirre 2

Maialen Zuazubiskar GARAI
Jasone Gezuraga Garaiko Landetxe eta Urkiola Hoteleko arduradunarentzat galdu ezin den zita horietariko bat da Korrika. Garain Landetxea zabaldu zutenetik Korrikan kilometroa erosi izan dute eta aurten ere ez dute hutsik egin. Senperen hartu zuten lekukoa, martitzenean, 1.411. kilometroan. Eskualdeko herri-tarrei asteburuan Korrikagaz bat egiteko deia egin die.

Aurten Iparraldean hartu duzue Korrikako lekukoa, Senperen. Zer dela eta?

Azken bost-sei Korrikatan hartu izan dugu lekukoa, eta aurten ere ezin genuen hutsik egin. Kontua da Landetxeaz gainera Urkiola Hotela ere badaukagula aurten, eta, beraz, martitzenean Urkiolako Hotela zarratu eta Landetxeke zein Hoteleko langileak, gure familiak eta gertuko lagunak Senperera joan ginen. Azken urteotan, normalean asteburua aprobetxatuta, Nafarroara edo Iparraldera joan izan gara eta han hartu dugu gure kilometroa. Badakigu Autonomia Erkidegotik kanpora kilometroak saltzea zenbat kostatzen den, eta guretzat ohore handia da

"Korrikak urte birik behin Euskal Herrian sortzen duena izugarria da, amets bat "

JASONE GEZURAGA GARAICO LANDETXEKO ETA URKIOLA HOTELEKO ARDURADUNA



Jasone Gezuraga eta bere familia lekukoa eramaten.

Nafarroan edo Iparraldean gure aletxoa ipintzea. Egunen batean kilometroak Bizkaian saltzeko

premia badago, hemen erosiko dugu. Baina bien bitartean behar den lekura joateko prest gaude.

Euskararen alde maitasunez sortzen duten ekimen hau beti hartuko dugu maitasunez.

Korrika betidanik izan da berezia zuretzat.

Korrikak urte birik behin Euskal Herrian sortzen duena izugarria da, amets bat. Oso bizipen politak bizi izan ditugu. AEKk asko suposatu izan du nire bizitza luze edo labur honetan. Gazteagoa nintzenean, niretzat urteko jairik ederrenetarikoa bat zen Korrika Larrabetzutik pasatzen zen unea. Askok hunkitzen nintzen, emozio polita zen. Gero, Durangaldera bizitzera etortzean, Garaira, nire bizitzako beste sasoi batean, Korrikak hau nire seme-alaben jaiotzagaz konpartitzea suposatu zuen. Bizkaiko Korrikako arduradun lege ere parte hartu izan dut Korrikan, eta 10 egunez lantalde eder batez ibili nintzen furgonetan.

Azken urteotan lankideekin eta etxekoekin izan dut aukera bizi-pen hau partekatzeke, eta hori oso polita da. Pertsonalki berezia da nire inguruko denak testiguareren parte izatea.

Gainera, aurtengo egoera ere berezia da niretzat, arazo pertsonal batzuk direla eta, gaixotasun bat; beraz, Korrikako unea oraindino eta bereziagoa izan da. Uste dut 24. Korrika gehien gogoratu-kodudana izango dela, bereziena.

Korrikagaz horrelako hartu-eman izanda, anekdotak ere izango dituzu.

Egia esanda, denerik pasatu izan zaigu. Gauez egin izan dugu, goizaldean... Esaterako, 23. Korrikara gurgil-aulkian eraman ninduten. Orkatila apurtu nuen, baina ez zen arazo bat izan, han egon nintzen.

Eta asteburuan, zapatu gauean, gure eskualdetik pasatuko da Korrika.

Eta denok animatu gura zaituztet Korrikagaz bat egitera. Irten kaler, egin irrintzi, egin korrika eta bete ditzagun Durangaldeko kale estu hauek guztiak jendez. Beste behin ere, Korrika euskara aldarrikatzeko momentu polit bat izan dadila.

hitz

liburudenda

info@hitzliburudenda.com
artekalea 23, durango
Tel.: 946 810 776
hitzliburudenda

24.korrika æk
Euskara gara
Atharratzelek Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

Durango Institutuan,
Euskara aho eta bihotzean!

LEKUKOAK

Jarraitu
Korrika
zuzenean

anboto.org
webgunean

"Korrikaren hasiera lehenengoz bizi izan nuen Atharratzen; hunkigarria izan zen"

EÑAUT AIARTZAGUENA ILUSTRATZAILEA ETA ERRIME EUSKARA ELKARTEKO KIDEA

J.D. IURRETA
Eñaut Aiertzaguenena Bravo (Iurreta, 1988) ezaguna da euskalgintzaren eta euskararen munduan. Iurretako Errime euskara elkartearen dabil, adibidez. Euren txikitik, aurren ere prest daude ekimen erraldioari euren ekarpena egiteko, eta hainbat ekimen antolatu dute. Atharratzen ere izan ziren, Korrikaren hasieran. Aiertzaguenarentzat esperientzia berria izan zen eta ez du berehalakoan ahaztuko.
Zelakoa izan zen Atharratzeko esperientzia?
Errime euskara elkarteak autobusa antolatu genuen eta Korrikaren hasiera bertatik bertara bizi izan dudana lehenengo aldia izan zen. Eta Atharratzen ere sekula egon barik nengoen. Oso polita eta hunkigarria izan zen. Jende asko, eguraldi ona... dena borobil

irten zen. Errime euskara elkartearen banderola batzuk ere eraman genituen. Kotoizko kamiseta jantzita eta motxila aldean, ez neukan korrika askorik egiteko asmorik, baina hasi ginen, sartu ginen milaka lagun kale estu batetik eta aurrera eta aurrera joan ginen. Furgoneta harrapatu behar nuela okurritu, eta bost kilometro behar izan nituen harrapatzeko. Banderolagaz furgoneta ikutu, eta Atharratzera buelta. Pena bakarra goiz bueltatu beharra izan zen, hiru orduko bidaia geneukan eta. Errepikatze moduko esperientzia izan da.
Zer antolatu duzue Korrikara begira?
Atzo argazki bat atera genuen lekuko eramaileekin. Bariku goizean Korrika txikia dago, Orobiogoitia hasita, Maiztegioko eta Orobiogoitiako ikasleekin.

Arratsaldean, puzgarriak eta umeentzako tailerrak egongo dira, Askondoko karpan. Zapatu iluntzerako hitano poteo bat antolatu dugu, eta ondoren, trikitilariak lagunduta, Durangora joango gara, Landako Guneko afarira. Amaitzeko, Iurretara bueltatuko gara, Korrikari harrera egiteko.
Kamisetak atera dituzue zuk sortutako irudiekin. Zelan sortu zen ideia?
Orain urte batzuk, taldetxo bat batzen hasi ginen euskararen inguruko ekitaldiak antolatzeke. Aurreko Korrika egun eta ordu aroprosean pasatzen zen Iurretatik jendeak parte hartzeko, eta egitarau zabala sortu eta marrazki bat egin nuen. Jendeagaz partekatu eta asko gustatu zitzairen. Kamisetak atera genituen eta baturiko diruagaz Korrikako ekimeneko gastuen



Errimekoek hainbat ekimen antolatu dute Korrikara begira.

zati bat finantzatu genuen. Sobratutako dirua AEKri eman genion. Aurten ere kamistek atera ditugu, baina udalak euskalgintzako kontuetarako finantziario bat bermatzea lortu dugunez, ez diogu oihartzun handirik eman. Jendeak AEKko materiala erostea gura dugu. Korrika horretarako ere bada eta hori bultzatu gura dugu.
Errime 2025 hasieran sortu zen. Zelan joan da orain arteko bidea?
Sortu eta segituan Euskaraldia etorri zen eta euskara elkarteak horri heldu genion. Ta-

bernekin eta txosnekin lanketa bat egin genuen jaietan euskarazko musika eskaintza zabala egon zedin. Orain Korrikara bideratu dugu gure ahalegina, eta horretan gabilta. Euskaraldiaz eta Korrikaz gainera, euskarak urtean 365 egun behar dituela ere aldarrikatu gura dugu, eta udalak euskalgintza urte osoan bere agenda politikoaren erdigunean ipini dezala. Ez gara asko eta denak mila saltsatan sartuta gaude, baina gure ekarpena egiten jarraitzeke prest gaude.





24.korrika *æk*
Euskara
gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

MALLABIA

MALLABIA	Urtiaga hiribidea 1	22:29:40
MALLABIA	Elizalde plaza	22:36:10
MALLABIA	Mallabarrena 3	22:42:01
MALLABIA	N-634, km 70	22:46:34
ZALDIBAR	N-634 KM 70,3	22:48:46
ZALDIBAR	N-634 km 70,7	22:51:22
ZALDIBAR	N-634 KM 71	22:53:58
ZALDIBAR	N-634 KM 71,5	22:57:13
ZALDIBAR	N- 634 KM 72	23:00:28
ZALDIBAR	N-634 KM 72,5	23:03:43
ZALDIBAR	Autonomia kalea	23:06:39
ZALDIBAR	N- 634 KM 73, 1	23:09:34
BERRIZ	N- 634 KM 73,6	23:12:49
BERRIZ	N 634 KM 73,8	23:14:27
BERRIZ	N 634 KM 74	23:16:04
BERRIZ	N 634 KM 74 ,2	23:17:42
BERRIZ	N 634 KM 74,4	23:19:19
BERRIZ	N 634 KM 74,6	23:20:57
BERRIZ	N 634 KM 75	23:23:33
BERRIZ	N 634 KM 75,2	23:25:10
BERRIZ	Iturriza kalea	23:26:48
BERRIZ	Zengotitabengoa kalea	23:28:25
BERRIZ	Getoki kalea	23:30:03
BERRIZ	Iturriza kalea	23:31:40
BERRIZ	Calle Murgoitio	23:33:18
BERRIZ	BI – 3321 KM 36,7	23:34:55
ELORRIO	BI- 3321 KM 37	23:36:52
ELORRIO	BI -3321 KM 37,7	23:41:45
ELORRIO	BI- 3321KM 38	23:46:37
ELORRIO	BI- 3321 KM 38	23:51:30
ELORRIO	BI -3321 KM 39	23:56:22
ELORRIO	BI 3321 KM 39, 7	0:01:15
ELORRIO	Ibarra kalea	0:06:07
ELORRIO	Nizeto Urkizu kalea	0:11:00
ELORRIO	Julian Ariño eta San Juan kaleak	0:15:52
ELORRIO	San Pio kalea	0:20:45
ELORRIO	San Agustin auzoa. BI -3331 KM 38	0:25:37
ELORRIO	BI 3331 KM37	0:30:30
ATXONDO	BI-632 KM 44,5	0:35:22
ATXONDO	BI 632 KM 45	0:39:16
ATXONDO	Juan Antonio Agirre Lekube kalea	0:43:10
ATXONDO	BI- 632 KM 45,5	0:47:04
ATXONDO	BI- 632 KM 46	0:50:58
ABADIÑO	BI- 632 KM 46, 5	0:54:52
ABADIÑO	BI- 632 KM 47	0:56:49
ABADIÑO	BI- 632 KM 47,3	0:58:46
ABADIÑO	BI – 632 KM 47,5	1:00:43
ABADIÑO	BI – 632 KM 47,8	1:02:40
ABADIÑO	Etxeazpia kalea	1:04:37
ABADIÑO	Solozabal kalea	1:06:34
ABADIÑO	Solozabal kalea	1:08:31
ABADIÑO	Zeletabe kalea	1:10:28
ABADIÑO	Gaztañodi kalea	1:12:25
ABADIÑO	Gaztañodi kalea	1:14:22
ABADIÑO	Astola auzoa	1:16:19

ABADIÑO	Astola auzoa	1:18:16
ABADIÑO	Astola auzoa	1:20:13
ABADIÑO	Trañabarren etorbidea	1:22:10
ABADIÑO	Trañabarren etorbidea	1:24:07
ABADIÑO	Zubibitarte kalea	1:26:04
ABADIÑO	Murueta kalea	1:28:01
ABADIÑO	Murueta kalea	1:29:58
DURANGO	BI-3333	1:31:55
DURANGO	BI-3333	1:33:13
DURANGO	Montevideo etorbidea	1:34:31
DURANGO	Juan Mari Altuna 20-22	1:35:49
DURANGO	Landako etorbidea: Landako eskola	1:37:07
DURANGO	Landako etorbidea 4, Elkartegia	1:38:25
DURANGO	Landako etorbidea eta Frantzisko Ibarra biribilgunean	1:39:43
DURANGO	Juan Antonio Abasolo 10-Sasikoa 4	1:41:01
DURANGO	Sasikoa 14	1:42:19
DURANGO	Alluitz kalea 10	1:43:38
DURANGO	Alluitz kalea eta Askatasun etorbideko biribulgunea	1:44:56
DURANGO	Askatasun Etorbidea 18	1:46:14
DURANGO	Zabale kalea 8	1:47:32
DURANGO	Galtzareta kalea 13	1:48:50
DURANGO	Galtzareta kalea 5	1:50:08
DURANGO	Sanagustinalde	1:51:26
DURANGO	Sanagustinalde	1:52:44
DURANGO	Sanagustinalde	1:54:02
DURANGO	Tabirabide 19	1:55:20
DURANGO	Gasteiz bidea	1:56:38
DURANGO	Gasteiz bidea 2	1:57:56
DURANGO	Laubideta 4	1:59:14
DURANGO	Zubiaurrea 5	3:00:32
DURANGO	Intxaurrondo 42	3:01:50
DURANGO	Intxaurrondo kalea 6	3:03:08
DURANGO	Goienkale 7	3:04:26
DURANGO	Arte kale 3	3:05:44
DURANGO	Barrenkale 1	3:07:02
DURANGO	Zumalakarregi	3:08:20
DURANGO	Ermodo kalea	3:09:38
DURANGO	Landako etorbidea 3	3:10:56
DURANGO	Fray Juan de Zumarraga 19	3:12:14
IURRETA	Montoiako zubian	3:13:32
IURRETA	Askondo kalea	3:14:50
IURRETA	Bixente Kapanaga	3:16:08
IURRETA	Maspe	3:17:26
IURRETA	Maspe	3:18:44
IURRETA	Iurretako bariantea	3:21:00
IURRETA	BI -634 82KM	3:23:17
IURRETA	BI- 634. 82KM	3:25:33

IURRETA	BI- 634 83 KM	3:27:50
IURRETA	BI- 634 83 KM	3:30:06
IURRETA	BI- 634 83 KM	3:32:23
IURRETA	BI- 634 84KM	3:34:39
IURRETA	BI- 634 84KM	3:36:56
ZORNOTZA	BI -634 84, 8 KM	3:38:53
ZORNOTZA	BI -634 85 KM	3:42:08
ZORNOTZA	BI- 634 86 KM	3:46:02
ZORNOTZA	BI- 634 86,7 KM	3:49:17
ZORNOTZA	BI – 634 87 KM	3:52:32
ZORNOTZA	BI- 634 87,8 KM	3:55:47
ZORNOTZA	BI- 634 88, 4KM	3:59:02
ZORNOTZA	BI – 634 88,8 KM	4:02:17
ZORNOTZA	BI- 634 89,4KM	4:05:32
ZORNOTZA	Ibarra auzoa; BI-634 90KM	4:08:47
ZORNOTZA	Ibarra auzoa	4:12:02
ZORNOTZA	San Miguel kalea	4:15:17
ZORNOTZA	San Pedro kalea eta Luis Urrengoetxea	4:18:32
ZORNOTZA	Gregorio Mendibil kalea	4:21:47
ZORNOTZA	Ibaizabal kalea	4:25:02
ZORNOTZA	San Pedro kalea, 38	4:28:17
ZORNOTZA	San Pedro kalea, 62	4:31:32
ZORNOTZA	Boroa auzoa (biribilgunea)	4:34:47
ZORNOTZA	BI-634 93,5 km	4:38:02
ZORNOTZA	BI -634 94 KM	4:41:17
ZORNOTZA	BI- 634 94,5KM	4:44:32
ZORNOTZA	BI-634 95 KM	4:47:47
ZORNOTZA	BI-634 95,5 KM	4:50:23
ZORNOTZA	BI- 634 95,8 KM	4:52:20
ZORNOTZA	BI- 634 96,2 KM	4:54:56
ZORNOTZA	BI -634 96,5 KM	4:56:53
ZORNOTZA	BI- 634 96,9	4:59:29
ZORNOTZA	BI- 634 97,2KM	5:01:45